

Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo ikasle hasiberrien hizkuntza-hautuak eta arrazoiak

Nekane Arratibel Insausti¹, Letizia Garcia Fernandez¹,
Joxpi Irastortza Madariaga^{1,2}

¹Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

²EMUN euskara eta berrikuntza soziala

Ikerketa honetan aztertu ditugu unibertsitatean hasi berri diren ikasleen hizkuntza-hautuak eta horien arrazoiak. Horretarako, Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo lehenengo mailako Hezkuntzako Graduetako ikasleak hiru hizkuntza-profil ezberdinetan sailkatu ditugu eta profil horietako ikasleekin eztabaida-taldeak egin ditugu hizkuntzen inguruan dituzten pertzepzio eta usteak jasotzeko. Emaitzek erakusten dute aztertutako hiru hizkuntza-tipologietako ikasleek euskararen gaitasunarekiko autopertzepzio positiboa dutela, nahiz eta hizkuntza-hautuetan ezberdintasunak dauden hiruretan. Euskal elebidunak dira euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen diren bakarrak eta bizi diren gune soziolinguistikoak eta gertuko sarearen nolakotasunak baldintzatzen dute neurri handian egiten duten hizkuntza-hautua. Euskal elebidunentzat hizkuntzak balio identitarioa duen bezala, gainerako ikasleentzat balio instrumentala du eta kasu gehienetan eskolako hizkuntzatzat daukate.

GAKO-HITZAK: Hizkuntza-hautua · Hiztun-tipologiak · Hizkuntza-gaitasuna · Hizkuntza-ingurunea.

Language choices of first year student-teachers and their reasons at Mondragon University

This study analysed the language choices of first-year student-teachers in the Faculty of Humanities and Education at Mondragon University and the reasons behind them. To this end, students-teachers were classified into three language profiles and focus groups were held with each profiles to reflect on their perceptions and beliefs about languages. The results showed that the student-teachers of the three language profiles examined have, a positive self-perception of their competence in Basque, although there are differences in language choices among them. Basque dominant are the only ones who feel more comfortable in Basque than in Spanish, and both the sociolinguistic areas in which they live and their social networks largely conditioned their language choices. For Basque dominant bilinguals the language has an identity value, but for the rest of the student-teachers, it has merely an instrumental value, and in most cases, they relate it only to school.

KEY WORDS: Language choice · Speaker typologies · Language ability · Language environment.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.119.2021.8>

Jasotze-data: 2020-10-16

Onartze-data: 2021-01-12

1. Sarrera¹

Euskararen erabileran eragiten duen aldagaietako bat norbanakoen ezagutza dugu ezbairik gabe. Azken urteotako datu soziolinguistikoen bilakaeraren azterketak adierazten du (Zalbide, 2016) euskal hiztunen proportzioak gora egiten jarraitzen duela; eta horixe bera erakusten dute Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailaren datuek ere:

Aurreko urteetako datuekin konparatuz gero, ikusten da gazteek euskara hitz egiteko duten ezagutzak edo gaitasunak gora egin duela. Euskara ondo edo nahiko ondo dakitenen ehunekoa % 48 zen 2000. urtean, % 56ra igo zen 2004an eta 2008an; % 62ra igo zen 2012an; eta % 69ra, berriz, 2016an (Eusko Jaurlaritza, 2017: 158).

Goranzko joerak ematen du jarraituko duela, eta alde horretatik egoera itxaropentsua aurreikus dezakegu. Euskararen ezagutza ezinbesteko baldintza da erabilerarako; izan ere, nekez erabil daiteke ezagutzen ez bada. Korrelazio argia dago ezagutzaren eta erabileraren artean, hau da, zenbat eta gaitasun handiagoa izan hizkuntza batean, gehiago erabiltzen dute hiztunek, eta alderantziz (Iurrebaso, 2016).

Honenbestez, norbanakoaren hizkuntza-ezagutza faktore garrantzitsua da bai euskararen erabileran baita euskararekiko motibazio eta atxikimenduan ere. Gorpil moduan ulertu behar dugu neurri batean ezagutza, horrek elikatzen baitu atxikimendua eta erabilera (Olasagarre, Ramos eta Vilches, 2019). Euskal hiztunen kopuruak gora egiten badu ere, erabileraren datuak bestelakoak dira Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailaren arabera:

(...) Berriro ere, ikusten dugu % 15ek lagunekin dena edo ia dena euskaraz hitz egiten dutela, edo euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela; eta % 11k, berriz, bi hizkuntzak berdinean erabiltzen dituzte. Guztira, % 26k adierazi dute euskara gaztelania bezainbeste, edo gaztelania baino gehiago, erabiltzen dutela lagunekiko harremanetan. Lagunen arteko erabileraren kasuan, beherakada handiagoa izan da eta, euskara ezagututa, hizkuntza nagusitzat edo gaztelania bezainbeste erabiltzen dutenen proportzioa 2004an % 49 izatetik 2016an % 38 izatera pasa da (Eusko Jaurlaritza, 2017: 158).

Horiek EAeko datuak badira, zalantza gutxirekin, aurreikus dezakegu Euskal Herriko gainerako administrazioen mendeko lurraldeetan egoera are eta eskasagoa izango dela. Beraz, erabilerak ez du gora egiten neurri berean eta, gainera, beherako joera izaten ari dela nabaritu da. Joera hori adin-tarte guztietan antzeman da, baita gazteen adin-tartean ere, norbanakoaren ezagutza-maila —haurren adin-tartearekin batera— handiena den adin-tartean, hain zuzen ere (Zalbide, 2016; Soziolinguistika Klusterra, 2017).

1. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren dirulaguntza izan du proiektu honek.
UZTARO 119, 143-165

2. Marko teorikoa

2.1. Hizkuntza-hautua

Fishmanek (2000:93) dioten bezala, «Language choices, cumulated over many individuals and many choice instances, become transformed into the processes of language maintenance or language shift», alegia, hizkuntza-hautuen emaitza da hizkuntza bizirik irautea edo ordezkatzea. Eta, jakina, hizkuntza baten ala bestearen hautua egiteak dakar bata erabiltzea eta ez bestea, bat gailentzea eta bestea, berriz, ez erabiltzea.

Hizkuntza erabiltzeko, hizkuntzen arteko hautaketa egin behar izaten dugu gizarte elebidun eta eleaniztunetan, hizkuntzen arteko ukipen-egoerako gizarteetan, alegia; eta sarritan, hizkuntza-hautua berdinen artean egiten dela esaten bazaigu ere, eskubidea dugula bata ala bestea aukeratzeko, hizkuntza aukeratzeko askatasun hori, ordea, ez da horrela beti. Praktikan, hiztun-komunitate horien arteko botere-harremank eragiten dute bataren edo bestearen hizkuntza-aukeraketa egitean. Askatasunaren, eskubideen eta errespetuaren mozorropean, hizkuntza-merkatuan oinarritutako eskaintza-eskariaren lege liberala gailentzen da, eta noski, botere-harreman horretan indartsuena denak ditu irabazteko aukera ia guztiak. Eusko Jaurlaritzak (2016) gazteen hizkuntza-praktiken inguruan egindako txostenean dio euskara eta gaztelania *continuum* batean kokatzen direla, eta gazteak oso erraz pasatzen direla hizkuntza batetik bestera, bateko euskaraz, hurrena gaztelaniaz, hitz-jarioa eten gabe eta ia konturatu ere egin gabe. Hizkuntza-praktika horietan gaztelania oso presente dago, eta gehienetan, nagusitu egiten da. Gazteek ez dute gaitasun-arazorik euskaraz egiteko, baina badira euskaraz arin eta erraz hitz egiteko zailtasunak dituzten batzuk, Ariznabarretak (2019) dioten moduan. Beraz, ikasle gehienak euskaraz hitz egiteko gai diren arren, ia ez dute erabiltzen; erraztasuna gaztelaniaz dute eta hizkuntza horren aldeko hautua egiten dute, euskararen kaltetan. Ildo beretik, Dobaranek (2017) dio, euskara jakin bai, baina erabiltzeko ohitura txikia duten hiztun kopuru handia dagoela eta euskaraz oso ondo moldatzen direnek euskara erabiltzeko hautu kontzientea egin behar dutela, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahalegina eginda edota bestelako baldintza batzuen arabera.

Hizkuntza-hautuaren ikuspegi indibidualista horretatik ikusarazi nahi da hiztunak modu autonomoan jokatzeko aukera duela eta edozein hizkuntza-egoeratan gai dela, askatasunez, bere nahi edo beharrekiko hizkuntza-hautua egiteko (Grosjean eta Li, 2013). Aldiz, Agirrek (2015) adierazten du euskararen hautua eta askatasun indibidualak ez direla parekoak eta diskurtso hori alboratu egin beharko genukeela.

Beraz, hizkuntza-hautuarena ez da erabakimen inozo bat, ustez norberak askatasunez har dezakeen eragozpenik gabeko aukera. Gehienetan modu automatikoan hartzen ditugu erabakiak, baita hizkuntza aukeratzeko erabakiak ere, baina, hizkuntza-egoerek bultzatuta, bi hizkuntzen arteko botere-harremanen mende gehienetan, gutxitua den hizkuntzaren kaltetan ia beti.

2.2. Hizkuntza-erabileran eragiten duten aldagai nagusiak

Zalbideren (2016) esanetan, euskararen erabileran eragiten duten aldagai nagusiak bi dira: euskaldunen dentsitatea harreman-sarean eta euskaraz egiteko erraztasuna. Bi horiez gain, badira eragina duten beste hainbat aldagai, hala nola lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa.

12 eta 30 urteko gazteen hizkuntza-erabileran, hiru sare aipatu izan dira bereziki: lehenik eta behin, familia edo etxeko harremanak; bigarrenik, ikasketa-prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak; eta, azkenik, berdinaren arteko harremanak (Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa, 2007).

Hizkuntza bat zenbat eta gutxiago erabili, orduan eta erraztasun, aberastasun eta erosotasun txikiagoarekin egingo dute hitzunek, eta alderantziz (lurrebaso, 2016). Euskal hitzunen euskaraz egiteko erraztasuna aldatu egin da azken 25 urteotan EAEn. 16-24 adin-tarteari dagokionez, 1991n euskal elebidunak % 19,6 ziren, elebidun orekatuak % 27 eta erdal elebidunak % 37,8. 2016an, euskal elebidunak % 25,3 dira, elebidun orekatuak % 19 eta erdal elebidunak % 55,7. Dena den, euskal hitzunek euskaraz egiteko duten erraztasunean, alde handia dago lurraldeen artean. Arabako euskal hitzun gehienak erdal elebidunak dira (% 70,8); Bizkaian, erdia pasatxo dira (% 54,7); eta, Gipuzkoan, ez dira herenera iristen (% 29,8). Euskal elebidunei dagokienez, ordea, alderantziz gertatzen da. Gipuzkoan dago euskal elebidunen ehunekorik handiena (% 35,9) eta Araban txikiena (% 6,7) (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Bestalde, hitzun elebidunok, egoera komunikatiboen arabera, hizkuntza bat ala bestea hautatuko dugu. Hizkuntza batek besteak baino indar handiagoa izango duenez, hitzunen hizkuntza-hautuan erabakigarriak izan daitezke komunikazioa gertatuko den egoera soziolinguistikoak hitzunarengan eragiten duen boterea eta hizkuntza bakoitzarekiko interesa eta ematen zaion balioa.

Alonsoren (2002) hitzetan, Pierre Bourdieu soziologo frantziarrak dio, hizkuntza-merkatuen teoriaren arabera, hitzunen arteko elkarreragina ez dela gertatzen garrantzi berdina duten hizkuntza-balio eta burujabetza berdinarekin; hizkuntzak egoera sozial desberdinean aurkitzeaz gain, diskurtsoen artean menderakuntza-prozesuak eta egiturazko zentsura gertatzen dira. Beraz, hizkuntza-produktu bakoitzak balio sozial bat jasotzen du —prezio bat—, elkarreraginean dauden aktoreen botere soziala agerian uzten duena. Bestalde, estatuaren eraketak berak sortzen ditu hizkuntza-merkatu bateratzailea egituratzeko baldintzak, funtsean hizkuntza ofizialaren normalizazio eta menderakuntzaren bidez. Beste modu batean esanda, estatu baten instituzio politikoa eta instituzio linguistikoa banaezinak dira; estatuak bere instituzioen (eskola, administrazio publikoak, herritarrek onartu beharreko arauak) bidez bere hizkuntza transmititzen du eta hizkuntza-praktika guztiak arau bihurtzen dira; alegia, estatuaren hizkuntzak etengabeko menderakuntza politikoa eragiten du herritarrengan bere instituzioen bitartez eta, bide batez, hizkuntza-praktikak arautzeko botere-instrumentu sinboliko bat da. Kezkagarria da, gaur egun, gazteen artean gaztelania eta euskara berdintzeko joera. Hizkuntza gutxitu baten hitzuna izateaz kontzientzia txikia dute; izan ere, ez dira ohartzen bi hizkuntzen arteko berdintasunik ezaz (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla, 2016; Dobaran, 2017).

Aurrez Fishmanek aipatu bezala, hizkuntza bizirik irautea edo ordezkatzeari hizkuntza-hautuen emaitza da; baina, hizkuntza gutxituaren egungo hizkuntza-merkatuaren baldintzetan, hiztunak ezinezkoa izango du askatasunez erabakitzea bere hizkuntza-hautuak. Hizkuntza bat derrigorrezkoa bada eta bestea ez, elkarreragin horretan beti edo ia beti bat aterako da irabazle, bestea galtzaile. Casesnoves-Ferrer eta Mas-ek (2017:109) unibertsitateko ikasleen hizkuntzekiko hautemateen eta hizkuntza-portaeren arteko harremana aztertzeke egindako lanean hauxe diote:

This norm [accommodation norm] (Giles and Johnson, 1981) indicates that, in communicative interactions with Castilian speakers, Catalan speakers have to change language. As pointed out by Boix Fuster, Melià Garí and Montoya Abad (2011) this accommodation norm is, today, one of the main obstacles for speakers of Spanish or other languages to learn Catalan.

Bi hizkuntzen arteko desoreka-egoera horretan, hizkuntza gutxiagotuko hiztunak egokitze-estrategietara jotzen du maiz, hizkuntza indartsua eta boteretsua duen hiztunarekiko mendekotasun-harreman horretan amore emanaz. Aristik (2019) ondo azaltzen duen bezala:

Glamour sozial eta mediatikoa da hizkuntza baten kapital nagusia. Hori, eta sostengua ematen dion botere politikoa, estatua, nagusiki (...) Hizkuntza baten osasuna babesa ematen dion botere politikoak markatzen du. Nazio aberatsak eta pobreak dauden bezala, hizkuntza aberatsak eta pobreak daude, ez linguistikoki ederrago edo zarpailago direlako, hizkuntza horiekin lor litekeen progresio sozialaren arabera baizik.

HUHEZIKo hezkuntza-proiektuaren zutabe garrantzitsuenetakoa da eleaniztasun gehigarria (HUHEZI, 2019). Berrikuntzaren markoan diseinatutako ikasketa-planean, ikaslearen irteera-profila lotu dugu, batetik, hizkuntzaren erabilera eta kalitatearekin. Horrez gain, hiztun oso bihurtzen gaituzten beste alderdi batzuei ere erreparatu diegu: norbere hizkuntzarekiko eta beste hizkuntzekiko ditugun jarrerei eta atxikimenduari, hiztunekiko dugun begiruneari, hizkuntzaren estatusari eta hizkuntzekiko motibazioari. Are gehiago, gure ikasleek euskara eta euskal kultura sustatzeko eragile aktibo izateko kontzientzia eta erantzukizuna hartzea nahi dugu (Imaz eta Ipiña, 2020).

Hala ere, euskararen ezagutza-maila % 100ekoa den eta euskara ardatz duen unibertsitateko erabileraren datuak kezagarriak dira. Azken neurketaren arabera, erabilera-datuak beherakada nabarmena islatzen dute 2009. urtetik gaur arte. % 62k egiten zuen euskaraz 2009. urtean eta ikasleen erdiek baino ez hiru urte igaro ondoren. 2017an, berriz, neurtutako elkarrizketen % 40 besterik ez da euskaraz (Garcia, Arratibel eta Irizar, 2017).

Gure ikerketaren helburu nagusia da HUHEZIKo 1. mailara datozen hizkuntza-profil ezberdinetako ikasleek hizkuntza-hautuaren inguruan dituzten diskurtsoak aztertzea. Jakin nahi dugu zer diskurtso agertzen den profil bakoitzean, zein den euskararen erabilerarekiko duten pertzepzioa fakultatean eta zer balio aitortzen dioten euskarari.

3. Metodoa

Lehenengo mailako ikasleak hizkuntza-profil ezberdinetan sailkatu ditugu, eta sailkapen hori egin ahal izateko, ikasleek aurrez bete zuten galdetegi kuantitatibo batean emandako erantzunak hartu ditugu kontuan. Galdetegi horretako hainbat itemetan emandako puntuazioetatik abiatuta definitu ditugu profilak, eta profil bereko ikasleak bildu ditugu eztabaida-taldeetan. Beraz, diseinu mistoa erabili dugu, hain zuzen, diseinu esplikatibo sekuentziala (Hernández, Fernández eta Baptista, 2014).

3.1. Tresna eta datuak jasotzeko prozedura

Galdetegiak atal hauek zituen: datu pertsonalak, datu soziolinguistikoak, euskara eta gaztelaniaz duten gaitasunaren autopertzepzioa, pertsona ezberdinekin eta eremu ezberdinetan egiten duten hizkuntzen erabilera, euskara eta gaztelaniarekiko erakusten duten atxikimendua eta identitatea, euskararekiko eta gaztelaniarekiko jarrera, euskararekiko uste eta igurikapenak, ideologia politikoa, eta Euskal Herriarekiko eta euskal kulturarekiko duten errepresentazioa.

Galdetegia *google forms* formatuan emailez jaso zuten ikasleek, eta eskola-ordu bat erabili zen ikasle guztiek ordu berean bete zezaten galdetegia, edozein galdera edo zalantza bazuten gelan bertan argitu ahal izateko. Galdetegia betetzeko 40tik 60 minutu bitarteko tarte erabili zuten.

Badakigu euskararen erabilera eragiten duen faktore nagusietako bat euskaraz egiteko erraztasuna dela (Zalbide, 2016), eta hizkuntza-profilak definitzeko orduan kontuan izan dugun aldagai nagusia izan da zer hizkuntzatan sentitzen diren erosoago gure ikasleak (euskaraz, gaztelaniaz, euskaraz zein gaztelaniaz berdin). Erosotasunaz gain, ondorengo itemetan emandako erantzunak ere kontuan hartu ditugu: a) gurasoekin zer hizkuntzatan egiten duten; b) lagunekin zer hizkuntzatan egiten duten; c) Whatsapp-en zer hizkuntza darabilten; d) ezezagunekin zer hizkuntzatan egiten duten; e) euskaldun izateko euskara jakitea beharrezkoa den; f) beren burua nola sentitzen duten (euskal herritar/espainiar); eta, g) euskal kultura bakarrik euskaraz egiten dena ote den.

Item horietako puntuazioen arabera, hiru hizkuntza-profil definitu genituen, aurrez esan bezala, eta artikulua honetarako hizkuntzaren dimentsioan jarriko dugu arreta bereziki. **Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua** (hemendik aurrera **Eus-Ele** laburduraz izendatuko dugu) multzoan sailkatu genituen euskaraz gaztelaniaz baino erosoago aritzen zirenak; guraso, lagun, Whatsapp-en eta ezezagunekin beti euskaraz aritzen zirenak; euskaldun izateko euskara jakitea beharrezko zela uste zutenak; beren burua euskal herritar soilik sentitzen zutenak, eta euskal kultura euskaraz eginikoa zela uste zutenak. **Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea** (hemendik aurrera **Ele-Pa** laburduraz izendatuko dugu) multzoan sailkatu genituen euskaraz gaztelaniaz bezain eroso sentitzen zirenak; guraso, lagun, Whatsapp-en eta ezezagunekin euskaraz gaztelaniaz bezainbat aritzen zirenak; euskaldun izateko euskara jakitea zertxobait beharrezkoa zela uste zutenak; beren burua euskal herritar adina espainiar sentitzen zutenak, eta euskal kultura euskaraz eginikoa zela baina baita gaztelaniaz eginikoa ere izan zitekeela esaten zutenak.

Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea (hemendik aurrera **Erd-Ele** laburduraz izendatuko dugu) multzoan sailkatu genituen gaztelaniaz euskaraz baino erosoago aritzen zirenak; guraso, lagun, Whatsapp-en eta ezezagunekin beti gaztelaniaz aritzen zirenak; euskaldun izateko euskara jakitea beharrezkoa ez zela uste zutenak; beren burua euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar baino espainiarrago sentitzen zutenak, eta euskal kultura euskaraz ez ezik gaztelaniaz eginikoa ere izan litekeela uste zutenak.

Galdetegi kuantitatibotik sortu ditugun hiru tipologietan sakondu nahi izan dugu ikerketa kualitatiboaren bidez (Egaña, 2010) eta, horretarako, hiru eztabaida-talde egin ditugu. Eztabaida-taldeei dagokienez, bi motatakoak izan daitezke gertatzen den dinamikaren arabera: moderatzailearen input gutxi batzuk jasotzen dituzten eztabaida-taldeak eta, eztabaida-talde gidatu edo erdi-gidatuak, non landuko diren gaiak aurretiaz erabakita dauden eta moderatzaileak galdera zehatzen bidez aurkezten dituen. Ikerketa honetan bigarren dinamika hautatu dugu. Moderatzaileak aurrez prestatutako galdera zerrenda baliatuta, galderak egiten joan ginen taldez talde. Mota hori aukeratzeko arrazoiak hau izan zen: hiru eztabaida-taldetan galdera berberak egin genituen egon zitezkeen erantzunak alderatu ahal izateko. Hala ere, galdera egin ondoren, moderatzailearen esku-hartzea txikia izan zen, ikasleei utzi baitzitzaien hitza hartzen eta gaia garatzen.

Honakoak izan ziren gogoeta-gaiak: euskaraz eta gaztelaniaz duten gaitasuna eta zer neurritan sentitzen diren konpetente hizkuntza bakoitzean, hizkuntzek haien bizitzan duten tokiaz eta zer hizkuntzatan bizi diren, hizkuntzei ematen dieten balioa eta hizkuntzekiko identifikazioa, euskal kultura zer den, lurraldetasuna eta Euskal Herria ulertzeko modua, nor den euskal herritarra eta nor den euskalduna.

3.2. Parte-hartzaileak

Galdetegia HUHEZlra 1. mailara etorritako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 179 ikasleek bete zuten, lehenengo mailako ikasle guztiek.

Laginari dagokionez, lehenengo mailako ikasleen % 67 emakumezkoak eta % 33 gizonezkoak dira. Adinaren batezbestekoa 18 urtekoa da. Jatorriari dagokionez, % 90 Euskal Autonomia Erkidegoan jaio da, % 7 Nafarroan, eta gainerako % 3a beste nonbait. Erdiak inguru, % 49,4, euskal hiztun kopurua % 50-79 tartekoa den gune soziolinguistikotik datoz; % 31,3 euskal hiztun kopurua % 20-49 tartekoa den gunetik; % 16,3 euskal hiztun kopurua % 80tik gorakoa den gunetik, eta gainerako % 2,8a euskal hiztunak % 20 baino gutxiago diren gunetik. Etxean jasotako lehen hizkuntzari dagokionez, % 46,4k euskara du lehen hizkuntza, % 28,5ek gaztelania eta % 24k euskara eta gaztelania. % 90 inguruk D ereduan egin ditu Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasketak eta % 18,4k EGA edo Euskararen C1 titulua dauka HUHEZlra iritsi aurretik.

Tipologia bakoitzeko irizpideak betetzen zituzten ikasleak identifikatu eta zerrenda bat osatu genuen guztiekin. Zerrendako ikasle guztiei talde-eztabaidetan parte hartzeko gonbidapena bidali genien emailaz eta talde-eztabaidaren data eta ordua proposatu genien. Eskaerari erantzun zioten ikasleek hartu zuten parte talde-

eztabaidetan: **Eus-Ele** taldean 9 ikasle, **Erd-Ele** taldean 7 ikasle eta **Ele-Pas** taldean beste 7 ikasle. Talde-eztabaidetan guztira 23 ikaslek hartu zuten parte. Hauek dira hizkuntza-profil ezberdinetan parte hartu zuten ikasleen ezaugarriak:

- **Eus-Ele** taldean 9 ikasleetatik 4 azkoitiarrak dira, 1 eskoriatzarra, 1 oñatiarra, 1 markinarra, 1 gabiriarra eta beste 1 irurarra. Emakumezkoak 6 dira eta gizonezkoak 3. Zortziren kasuan lehen hizkuntza euskara da eta bestearen kasuan gaztelania.
- **Erd-Ele** taldean 7 ikasleetatik 3 gasteiztarrak dira, 1 donostiarra, 1 ermuarra, 1 elorriarra eta beste 1 altsasuarra. Emakumezkoak 5 dira eta 2 gizonezkoak. Kasu guztietan lehen hizkuntza gaztelania da.
- **Ele-Pas** taldean 7 ikasleetatik 2 arrasatearrak dira, 1 oñatiarra, 1 durangarra, 1 zumarragarra, 1 donostiarra eta beste 1 iruindarra: zazpiak emakumezkoak dira. Lau ikasleren lehen hizkuntza euskara da, 2rena gaztelania eta beste 1ena euskara eta gaztelania.

Horrela, ikasleen anonimotasuna mantendu baina aldi berean ezaugarritu ahal izateko, honela izendatu ditugu, adibidez: (*Ikasle 7, Eus-Ele, Gabiria, G*); kasu honetan 7 ikaslea da, euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua, gabiriarra eta gizonezkoa.

3.3. Datuen analisirako prozedura

Transkripzioak egin ondoren, datuak eduki-analisia izeneko prozeduraren bitartez aztertu ditugu, Ruíz Olabuenagak (1999) deskribaturiko etapei jarraituta. Atlas.ti (7.5.18) bertsioa izan da transkripzioen azterketarako erabili dugun tresna.

Fidagarritasuna bermatzeko, erreproduzigarritasun-diseinu bat egin dugu, zeinean gutxienez bi behatzaile eta % 85eko adostasuna behar diren (Nieto eta González, 2002). Horretarako, ikerketa-taldeko bi ikertzailek bakoitzak bere aldetik aztertu dugu talde-eztabaida bat, eta norberak bere kabuz kategorizatu, analisiaren sistematizazioa ziurtatzeko. Lortutako adostasun-maila % 88koa izan da. Kategoriak adostu ondoren, bi ikertzaileek gainerako talde-eztabaiden analisia egin dute analisiak alderatzeko eta kategorizatutako testu zatiak homologatzeko (Creswell, 2009).

4. Emaitzak

Atal honetan eztabaida-taldeetako parte-hartzaileen diskurtsoetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu. Datuak bi multzo handitan banatu ditugu; batetik, norbanakoen hizkuntza-ezagutzaren eta hizkuntza-hautuaren arteko harremanaren inguruko diskurtsoak, eta, bestetik, testuinguruaren eta hizkuntza-hautuaren arteko harremanaren ingurukoak. Multzo bakoitza hainbat azpikategoriatan antolatu dugu eta horietako bakoitzean ikasleen tipologia ezberdineko emaitzak jaso ditugu. Emaitzak aurkezteko, Euskal elebiduna euskal dimentsioan engaiatua (**Eus-Ele**), Elebidun pasiboa euskal dimentsioan engaiatugabea (**Ele-Pa**) eta Erdal elebiduna euskal dimentsioan engaiatugabea (**Erd-Ele**) ordenari jarraituko diogu.

4.1. Norbanakoaren hizkuntza-ezagutza hizkuntza-hautuan

Atal honetan norbanakoaren hizkuntza-ezagutzari erreferentzia egiten dioten emaitzak aurkeztuko ditugu; lau kategoriatan, hurrenez hurren: norbanakoaren euskararen ezagutzaren pertzepzioa jasotzen dutenak, besteen euskararen ezagutzari erreferentzia egiten diotenak, hizkuntza-erosotasunaren ingurukoak eta euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanari buruzkoak.

4.1.1. Euskararen ezagutzaren autopertzepzioa

Kategoria honetan, norberak euskara-gaitasunaz duen autopertzepzioaren inguruko hausnarketak jaso ditugu. **Eus-Ele** tipologian, gaztelania-gaitasunaren autopertzepzioa ere jaso dugu. Talde horretan soilik azaleratu da gaztelaniaz egiteko zailtasuna eta jasotzea egoki iruditu zaigu.

Ez dauket arazorik ba ulerketako o irakurtzeko ta, eongo dia hobetu laizken gauzak baina orokorrian ondo. (Ikasle 8, Eus-Ele, Oñati, E)

Es que nei berdin zait, bitan ondo moldatzen naiz. Ze karo, esan deten bezela, nik txikitatikan erderaz in det ta gero euki nun aldaketa de euskera pasa nintzala, de repente, kuadrilan ta hola, hasi ginan euskeraz iten, ta oain nik lehenengo hitza beti euskeraz itet, baño erderaz berdin-berdin moldatze naiz. O sea hori da gauza batekin ez dakatela arazoik. (Ikasle 3, Eus-Ele, Irura, E)

Aste Santu hauetan, Burgosen izan naiz, monitore titulua atazten ta ni berez berritsu naiz, baño es que han nik ezin nun in erderaz, ta sekula enaiz eon hain ixilik. Nahiago nun ixilik eon erderaz hitzeitia baño. (Ikasle 5, Eus-Ele, Azkoitia, E)

Euskararen ezagutzari dagokionez, **Eus-Ele** tipologiako ikasle guztiek euskaraz gai ikusten dute beren burua. Ikasle batek euskaraz zein gaztelaniaz berdin moldatzen dela dio eta hiru ikaslek, ordea, gaztelaniaz mintzatzeko zailtasuna dutela onartu dute. Horietako batek azpimarratu du gaztelaniaz ez egiteagatik nahiago duela isilik egon.

Defenditzeko hola, bai, ze azken baten hitz egin dot, bueno nire kasuan, hitz egin dot gurasokin ama hizkuntza, nire ama hizkuntza izan da beti euskerie ta uste dot banazela kapaza o sea defenditzeko edo hola. (Ikasle 5, Ele-Pa, Arrasate, E)

Nire ama hizkuntza ez da euskera, bueno nik gurasogaz itten dot erderaz, baino bueno, gero ikusten dot ni gai nazela euskeraz itteko o sea ondo. Lagunegaz ta holan, klasian bebai euskeraz ikusten dot ondo itten dotela. (Ikasle 1, Ele-Pa, Durango, E)

Ele-Pa tipologiako partaideen euskararen ezagutzaren autopertzepzioa positiboa da, bai lehen hizkuntza euskara dutenen artean baita gaztelania dutenen artean ere.

Ba, aber nire aldetik ni beti erderaz hitz egiten det eta orduan zailtasunak ditut euskeraz hitz egiteko, baina gero besteekin, ba euskeraz hitz egiten ba ondo eta horrela nire euskera aurreratzen det. (Ikasle 3, Erd-Ele, Donostia, E)

Nire ustez ere hasieran oso zaila egiten zitzaidan ez dudalako ia euskeraz hitz egiten eta hemen etortzerakoan ba mundu guztiak euskalkiak ditu ta zailtasunak izan nituen baino orain ia... hobeto. (Ikasle 7, Erd-Ele, Gasteiz, E)

Erd-Ele tipologiako ikasleek fakultatean hasi zirenean zailtasuna izan zutela onartzen duten arren, hobekuntza-bidea egiten ari direla nabarmentzen dute eta gaur egun euskaraz gai ikusten dute beren burua. Gaztelania erabiltzeko ohitura handia dutela diote eta hori baliatzen dute euskaraz dauzkaten mugak justifikatzeko.

4.1.2. *Besteen euskararen ezagutzarekiko pertzepzioa*

Kategoria honetan, ikasleek beste ikasleen euskararen ezagutzarekiko duten pertzepzioa jaso dugu. **Eus-Ele** tipologian sortu da horren inguruko elkarrizketa eta **Ele-Pa** tipologiako ikasle batek ere aipatu du, gainerako ikasleek, aldiz, ez.

Nere klasen e hori pasatzen tzait. Igual nere euskalkixegatik ez die ulertzen batzuk ta azkeneako ya erderaz esan behar. Euskera batuan hasi ta etziela ulertzen ta ordun... (Ikasle 4, Eus-Ele, Azkoitia, E).

Nei pena emateit... eztaikit... baño adibidez egixe da nere gelan nik ikustet kurtsio hasieratik hona gasteiztarrak ba asko hobetu duela euskera maila ta hori txalotzekoa da nire ustez. Atzenin ahalegindu in die ta ulertu behar deu baitte beaixen.. hori, Gasteizen ez dala eiten euskeraz ta atzenin esfortzu bat itteuela euskeraz hitzeitako. Ta hori nere ustez txalogarria ere bada, interes hori erakustie edo ahalegin hori erakustie. (Ikasle 5, Eus-Ele, Azkoitia, E).

Eus-Ele tipologiako ikasleek onartzen dute euskalkian hitz eginda beste ikasle batzuek (Gasteizkoak aipatzen dituzte bereziki) ez dietela ulertzen eta gaztelaniara pasatzen direla. Aldi berean, aitortza moduko bat ere badago ikasturte-amaierarako ikasle horien euskara-gaitasuna nahikoa hobetu dela esanez, eta testuinguru soziolinguistikoa azpimarratzen dute baldintzatzailetzat.

Ni konturatu naz, klasian igual dazela pertsona batzuk igual Gasteizetik datozela eta euren euskera maila dala oso baxua. (Ikasle 5, Ele-Pa, Arrasate, E)

Ele-Pa tipologiako ikasle batek ere egin dio erreferentzia besteen euskararen ezagutzari eta Gasteiztik datozen hainbat ikasleren euskararen ezagutza baxua aipatu du.

4.1.3. *Erosoago zer hizkuntzatan*

Kategoria honetan, hizkuntza-erosotasunari erreferentzia egiten dioten erantzunak bildu ditugu:

[...] erderaz nik ez, askoz gehixo kostatzen zat [...] (Ikasle 9, Eus-Ele, Azkoitia, E)

Nik euskeraz hobeto eitxen dot erderaz baño. Baina nik uste dot bebai jendiak erderara jotzeula bebai ba euren komodidadeagaitxik, eztaikit. (Ikasle 2, Eus-Ele, Eskoriatza, E)

Eus-Ele tipologiakoak euskaraz eroso ari dira eta onartzen dute euskaraz gaztelaniaz baino erosoago egiten dutela.

Ni erderaz. O sea, orain gustora nago euskeraz hitz egiten, baina igual bai batzutan jartzen naizela urduriago. Igual ez zait ateratzen hitz bat edo... azkenean nik gurasoekin beti hitz egin dut erderaz eta lagunekin ere, orduan... (Ikasle 2, Ele-Pa, Donostia, E)

Ele-Pa tipologian, lau ikaslek bi hizkuntzatan eroso sentitzen direla adierazi dute; beste batek, gaztelaniaz erosoago egiten duela aitortu du; eta, azken batek, bi hizkuntzen arteko nahasketa egiten duela.

Nik adibidez lortu nahi dut maila bat hiru hizkuntzetan berdina, osea, ez bata ez bestea. (Ikasle 5, Erd-Ele, Ermua, E)

Bai. Hori da. Komunikatzeko orduan ni erraztasuna dakadalako gaztelaniaz hitz egiteko, baina ni ere lortu nahi det hirutan. (Ikasle 3, Erd-Ele, Donostia, E)

Pues hasarretzerako orduan. Azken finean ez nago ohituta euskaraz hitz egitera, ta haserretzen banaiz, pues jartzen zara como furiosagoa eta ezin duzu euskaraz, osea euskaraz espresatu. Berdina gaztelera... osea gaztelera igual espresatu ahal zara hobeto euskaraz baino . ez dakit, osea azken finean ohitura hori daukadalako. (Ikasle 6, Erd-Ele, Gasteiz, E)

Erd-Ele tipologiako ikasleek aitortzen dute errazago eta erosoago moldatzen direla gaztelaniaz, hala jaso dutelako etxean eta ohitura dutelako hizkuntza horretan egiteko. Bi ikaslek aipatzen dute gustatuko litzaiekeela dakizkiten 3 hizkuntzetan gaitasun berdina lortzea. Modu inkontzientean erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da eta euskaraz egitea kosta egiten zaiela aitortzen dute. Haserre-uneetan, adibidez, ez dute beren burua euskaraz hitz egiteko gai ikusten.

4.1.4. Euskara batua eta euskalkia

Azpi atal honetara ekarri ditugu euskara batua eta euskalkien inguruko aipuak:

Netzako HUHEZIn jentie ez da bizi euskaraz, inundik inoa ez, nere klasen behintzet. Ta nik askotan pasatzeana da nik euskalkixen iten dot berba ez? Eta klasien nik euskeraz iteko in biot euskalkie nahastu, gipuzkoakin sartute ta batuaz diferente bat eiteko.. azkenik nitzakore erosoue da erderara pasaitia, askoz hobe ulertzeie danak, ta hori da pasaten dana, ta ezta niri pasatze zaitena bakarrik, beste askorire pasatze zaie ta azkenin ba erderara pasatzezu [...]. (Ikasle 1, Eus-Ele, Markina, G)

Ni adibidez euskara batuan ez naiz sentitzen oso komoda berba itxen baina ezta ez dot igarketan dazkatela zailtasun asko, azkenian beti txikitatik ba asko irakurri dot ba euskera batuan ta gero ba ta idatzi be itxen nuan asko ta beti batuan ta orduan ez dakit erreztasuna beti eduki dot. (Ikasle 8, Eus-Ele, Oñati, E)

Eus-Ele tipologiako 4 ikaslek aipatu dute gelakoek euskalkian ulertzen ez dietenez, batuan egitea ere zail egiten zaiela eta errazena gaztelaniaz egitea dela. Horrela, denek ulertzen diote elkarri. Batuaz egiteko erraztasunaz galdetuta, ikasle batek aipatzen du ez duela erabiltzeko erraztasunik, euskalkian aritzeko ohitura handia duelako. Beste biek diote batuaz aritzeko nahikoa gaitasun dutela. Horietako batek zehaztu du erraztasuna bai, baina ez dela eroso sentitzen.

Neri gertatzen zait kontrakoa, nola nik euskera batuan hitz egiten deten, uste det zuek hobeto, ez dakit.... Benetan, ez det inoiz entzun euskalkirik, o sea... (Ikasle 2, Ele-Pa, Donostia, E)

Gure gelan ere hori pasa da. Igual batuan hitz egiten duen norbaitekin ba zeoze ulertzen zotzan baino adibidez daukau Azkoitiko bat ta Gasteizkoa ta Azkoitikua no...no compatible. Geratzen zan Gasteizekoa como... ¿qué me estas contando? Ta gero ya batuan esaten zotzan, ta ya bai. (Ikasle 6, Ele-Pa, Arrasate, E)

Ele-Pa tipologiako artean, batua dutenek uste dute euskalkia dutenek euskaraz txukunago egiten dutela. Batzuek inoiz ez dute euskalkirik entzun eta ulertzea kostatu egiten zaie. Hainbat ikaslek euskalkia ulertzea kostatu egiten zaiola adierazi du, eta zehazki Gasteizko ikasleak aipatu dituzte.

Ni hasieran ba, pixkat beldurra ze... bat.. nire ikaskide bat ikasgelako kideei eee ez nien edo ulertzen edo... ze azkenean bere... bere hitz egiteko era ba pixkat desberdina da, baina kurtsoa pasa ahala ba ondo. Orain ulertzen dut eta ondo. (Ikasle 6, Erd-Ele, Gasteiz, E)

Erd-Ele tipologiako partaideek fakultatera etorri zirenean inoiz baino euskara eta euskalki gehiago entzun zutela diote. Egoera horrek ikasturte-hasieran gelakideei ulertzeko zailtasuna sortu zien eta ezintasunak ere beldurra eragin zien. Ikasturteak aurrera egin ahala, euskara-gaitasuna hobetu dutela iruditzen zaie.

4.2. Testuingurua hizkuntza-hautuan

Atal honetan testuinguruari erreferentzia egiten dioten emaitzak aurkeztuko ditugu; sei kategoriatan, hurrenez hurren: testuinguru hurbila, familiako hizkuntza, fakultateko euskararen presentziaren pertzepzioa, euskara eskolako eta eskolarako hizkuntza, hizkuntza-balioen ingurukoak, eta hizkuntza-berdintasunari eta euskararen mendekotasunari erreferentzia egiten dietenak.

4.2.1. Testuinguru hurbila

Kategoria honetan, hizkuntza-ohiturek eta hizkuntza-hautuak duten harremanaren inguruko adierazpenak jaso ditugu.

Adibidez nire etxean eta inguruan euskeraz itzeitte da ta gero e bai ba honera etorritakon ba batzutan erderaz batek ez badakit, automatikamente ateratzen zait, beste guztitan euskeraz. (Ikasle 7, Eus-Ele, Gabiria, G)

Neire iguala pasatze zait. Igual erderaz zeoze esan behar dot ta ya nerbiosa, ezin... ta ordun ba euskeraz. (Ikasle 4, Eus-Ele, Azkoitia, E)

Eus-Ele tipologiako ikasleak euskaraz bizi dira, ohitura euskaraz egitea da eta euskararen aldeko hautua egiten dute. Gainera, bi ikaslek gaztelaniaz aritzeko zailtasuna aipatzen dute.

Es que gero e bai da testuinguruan arabera, ez? Azken baten egoten bazare zure lagunekin igual batzutan irteten jatzu gaztelera gehiau, gurasoekin izaten badozu ama hizkuntza euskeria edo gaztelera ba urtetan jatzu ba hizkuntza hori... o sea nik uste dot dala apur bat testuinguruaren arabera. (Ikasle 5, Ele-Pa, Arrasate, E)

Es que nire ustez, euskaraz bizi gara? Bai, baino gazteleraz ere. Esan duguna, segun testuingurua, testuinguruaren arabera. Nik Iruñean adibidez, alde zaharean, igual bai hitz egiten duzu gehio euskaraz, baino beste leku batzutan ez. O sea segun nun zauden eta... (Ikasle 3, Ele-Pa, Iruñea, E)

Ele-Pa tipologiako ikasleek diotenez, testuinguruaren arabera hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautua egiten dute. Onartzen dute gaztelaniaz egiteko ohitura dutela eta errazago irteten zaiela. Ohituraz erabiltzen duten hizkuntzak eragina du hautuan.

Ni, adibidez, eee Gasteizen, eeee, eske ezin dut hitz egin inorekin euskeraz ze nire gurasoek ez dakite, ta nere lagunak joan dira kanpora ikastera ta orduan ha ez dute erabiltzen eta galdu dute hitz egiteko joera ta fasilidadea edo. (Ikasle 6, Erd-Ele, Gasteiz, E)

[...] azken finean, eske ez... ez dut ezer hitz egiten euskeraz; bakarrik unibertsitatean, eta batzuekin. (Ikasle 7, Erd-Ele, Gasteiz, E)

Erd-Ele tipologiakoak testuinguru erdaldunean bizi dira, gaztelaniaren aldeko hautua egiten dute. Euskaraz hitz egiteko zailtasuna onartu dute, fakultatea da euskara erabiltzen duten testuinguru bakarra. Gaztelaniaz bizi izan dira eta bizi dira.

4.2.2. Familiako hizkuntza

Familiako hizkuntzak eta hizkuntza-hautuaren inguruko diskurtsoak jaso ditugu. **Eus-Ele** tipologiako aipurik ez da jaso, euskara jaso dute etxean eta euskararen aldeko hautua egiten dute, baina egoera honi buruz ez dute ezer zehaztu.

Nik nire ingurun osea euskaraz hitz egiten det, baino nere familatik ta hola baita euskera erabiltzen detelako. (Ikasle 7, Ele-Pa, Zumarraga, E)

Egia da nei tokau zaidala kuadrila bat danak dakola ia ama hizkuntza euskeria, ta nik neukan hasieran joera gehixau erderaz eitteko, ba atzenian ama hizkuntza ba erdera zelan euki doten ba gurasoekin, familixatan danakin erderan in izan dot ta primokin ta holare dana erderaz, ta gero hemen, ni udaran juten naizen herrixa da aman herrixa ta hor ere dana erderaz lagunekin da. (Ikasle 4, Ele-Pa, Oñati, E)

Etxean euskara eta gaztelania jaso dituen **Ele-Pa** tipologiako ikasle batek dio etxean euskaraz egiten duenez, ingurukoekin ere hala egiten duela. Beste bi ikaslek aipatzen dute etxean gaztelaniaz egiten dutela eta horrek eragina daukala beren hizkuntza-portaeretan.

Nire gurasoak adibidez ez dute hitz egiten euskara eta azken finean baaa, e ohitura dut nire lagunekin gazteleraz hitz egiteko, orduan ez naiz orain hasiko euskaraz hitz egiten, azken finean, eske ez.. ez dut ezer hitz egiten euskeraz; bakarrik unibertsitatean, eta batzuekin. (Ikasle 7, Erd-Ele, Gasteiz, E)

Erd-Ele tipologiako hiru ikaslek aipatzen dute familiako hizkuntza gaztelania dela. Guraso elebakarrak dituzte eta gaztelaniaz egiten dute orain arte horrela ohitu direlako, ez die gatazkarik sortzen eta ez dute horren inguruan hausnartu.

4.2.3. Fakultateko euskararen presentziaren pertzepzioa

Atal honetan, fakultateko euskararen presentziaren pertzepzioa jasotzen duten adierazpenak jaso ditugu.

Nik esango nuke irakasleen partetik baietz baino ikasli danetik daola ta ni ondo sentitzen naiz nik euskeri dakitelako eta horrek irakasleekin komunikatzeko erreztasuna gehiago dakatelako euskeriagatik baina beste ikasle batzuk ba... eztakit. (Ikasle 9, Eus-Ele, Azkoitia, E)

Ni adibidez lelengo egunian etorri nintzarian apur bat falta gehixo pentseiten neben euskera gehixo entzungo nebela, apur bat ez zitzaidan gustau entzutia hainbeste erdera, ez neben espero entzutia hainbeste erdera , orduan ba ni nire ingurukoakin beti euskeraz ta ba bai nire kasuen bai. (Ikasle 8, Eus-Ele, Oñati, E)

Osea badakit Gasteizko batzuk hoixek neri gazteleraz ingo dibela ta beixek badakite nik euskeraz , hori beti. (Ikasle 9, Eus-Ele, Azkoitia, E).

Nere klasen euskaraz ez da bizi jentie ta hori argi dauket. (Ikasle 1, Eus-Ele, Markina, G)

Eus-Ele tipologiako ikasleen ustez, fakultatea ez da testuinguru euskalduna. Hainbat irakasleren partetik ikusten dute euskara sustatzeko saiakera, ez, ordea, ikasleen portaeretan. Aipatzen dute fakultatera etorri aurretik ez zutela espero hainbeste gaztelania entzutea eta fakultatea ingurune erdalduntzat jotzen dute. Kritikoki adierazten dute gaztelaniarako joera bai gela barruan baita kanpoan ere: euskararen aldeko jarrerak bai, baina ez dago euskaraz egiteko benetako nahirik. Egoerak tristura sortzen die. Onartzen dute besteek gaztelaniaz egitea, baina ez dute amore ematen eta euskaraz erantzuten dute. Ikasle batek ikasturte-hasierako talde-lan batean gertatutakoa kontatzen du: taldekideek gaztelaniaz egiten zuten, eta horregatik, gaztelaniaz egitera edo isilik egotera behartu zuen bere burua. Azpimarratzen du gaur egun horiekin ere euskaraz egiten duela. Beste ikasle batek aitortzen du bere gelan hainbat ikaslek ezagutzan aurrera egin duela.

Nik ebai aldaketa hori ikusi dot. Hasieran, HUHEZIn egon, o sea egon baino aurretik, ikusten neban euskera ya ez nebala asko erabiltzen ta gero etorri nintzen hona ta ya jendiagaz ta hasi nintzen hor euskeraz hitz egiten ta hori bai igertu dot aldaketa bat, o sea, hobeto eiten dotela, o sea, hobeto idazten dotela eta ebai hitz egin. Hori ikusten dot. (Ikasle 1, Ele-Pa, Durango, E)

Nik ere notau det adibidez hemen askoz gehio erabiltzen detela, baino, o sea eztakit, igual oain ebai erraztasun gehio dauket baita hitz egiteakoan ta hola. (Ikasle 7, Ele-Pa, Zumarraga, E).

Ele-Pa tipologiako artean, testuinguru erdaldunagoetatik datozenen pertzepzioa da fakultatean daudenetik lehen baino euskara gehiago erabiltzen dutela. Oro har, beraien hizkuntza-ohitura gaztelaniaz egitea da eta horrek eragina izan dezake. Horretaz gain, ikasleak ohartzen dira erabileraren eta ezagutzaren arteko loturaz; gehiago erabiltzen dutenez, errazago egiten dute.

Nire ustez hemen exijetzia asko dagoela alde horretatik, euskararen aldetik. exijitzen dute mail bat ta batzuk ez dute mail hori, orduan, beren kabuz lortu behar dute mail hori lortzeko. Nire ustez, hemen sartu baino lehen, ee, ba, alde horretatik, e, euskeraz pixka bat ez dakitenok, e, edo froga bat egin, ze gero hemen, dena euskeraz baldin bada, ee, pertsona horiek zailtasun gehiago izango ditue, dituzte. (Ikasle 2, Erd-Ele, Gasteiz, G)

Ba nire ustez euskaraz bizi gara azken finean, eee, hemen Mondragonen, osea Mondragoneko unibertsitatean bultzaten dela euskaraz ta beste hizkuntz bat bezala ikustea ta ez ba zerbait ya osea galtzen ari den hizkuntz bat bezala. Nire ustez, bai. (Ikasle 1, Erd-Ele, Altsasu, E)

Erd-Ele tipologiakoan pertzepzioa da fakultatean euskaraz bizi direla. Onartzen dute gaztelaniaz egiten dutela; baina, oro har, korridoreetan euskara asko entzuten da, besteek hala egiten dutelako. Ikasle gutxi batzuekin saiatzan dira euskaraz egiten (esfortzua egiten ari direla dio ikasle batek) eta badakite fakultatea testuinguru aproposa izan daitekeela euskaraz gehiago egiteko eta euskara-gaitasuna handitzeko, baina ez daukate ohiturarik eta jarrera positiboa agertzen badute ere, portaera ez dute aldatzen. Ikasle batek aipatzen du hizkuntza-maila handia eskatzen dela fakultatean eta adierazten du desoreka handia dagoela ikasleen euskara-gaitasunean eta denen abiapuntua ez dela berdina.

4.2.4. Euskara eskolako eta eskolarako hizkuntza

Kategoria honetan, euskararen erabilera ikasgelara mugatzeko pertzepzioak jaso ditugu. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, fakultateko ikasgela barruko zein kanpoko portaerak berdinak diren jakin nahi izan dugu.

- *Orokorrean ikustezue diferente jokatzeala klase barrun ta klase kanpon? (Ikertzailea)*
- *Bai. (Eus-Ele ikasle guztiek)*
- *Klase barrun... zer? (Ikertzailea)*
- *Apur bat gehixean baiña jende askok e erderaz eiten dau. (Ikasle 2, Eus-Ele, Eskoriatza, E)*
- *Hoi da, o sea, adibidez, gure klasen gertatzea gukin, o sea nik adibidez, Gasteizko batekin hitz egitean, nekin euskeraz itteu baño gero beraien arten elkartzeienen klasean izanda ere, erderaz iteue. (Ikasle 3, Eus-Ele, Irura, E)*
- *O sea beaixek badakixela zenekin in euskeraz ta zenekin ez. (Ikasle 5, Eus-Ele, Azkoitia, E)*
- *Hori da. (Ikasle 3, Eus-Ele, Irura, E)*
- *(Baiezkoa buruarekin denek)*

Eus-Ele tipologiakoan esanetan, gela barruan irakaslearen presentzia eta eraginaren ondorioz, gehiago egiten da euskaraz, baina gelatik kanpo hizkuntza nagusia gaztelania da. Gelan bertan ikasle batzuek beren artean gaztelaniaz egiten dute eta beste batzuek zuzentzeko euskara erabiltzen dute, hau da, ikaslea nori zuzentzen zaion, hizkuntza bat ala bestea hautatzen duela baieztatu dute.

Ni honea etorri baino leheneago ia ez nuen euskera erabiltzen, o sea ikastolan, antzerkia egiterakoan eta hola, bai baina... klasekoekin eta egia da beti erderaz hitz egiten nuen... hemen, hitz egiten det erderaz, baina euskeraz ere ... asko erabiltzen det. Baina, klasean eta hola pues dana euskeraz egiten dugu, orduan... euskera bastante erabiltzen det. (Ikasle 2, Ele-Pa, Donostia, E)

Klasian ta hola bai saiaketan gara beti euskeraz itten berba o hola, baina gero bai da egixa ba kalera irteten zarenian segun zeinekin zelan eraiki dozun harremana badaukozula joeria ba erderaz eitteko berba pertsona batzukin ta euskeraz beste batzukin. (Ikasle 4, Ele-Pa, Oñati, E)

Ele-Pa tipologiako ikasleen adierazpenetan jaso da euskara gela barruko hizkuntzatat dutela eta gelatik kanpo joera orokorra gaztelaniaz egitea dela. Unibertsitatean, orain arte egiten zutena baino euskara gehiago egiten dutela diote, baina gaztelaniaz ere egiten dutela aitortu dute.

Egia da askotan, gu gaztelaniaz ee hitz egitek, egia da, egia da gu, askotan, gaztelaniaz hitz egiten dogula, baina, eee, nik uste dut, ee baita dagoela bueno alde batetik ee gure ee esfortzu bat euskaraz hitz egiteko, orduan, nik, behintzat horrela ikusten dut, ze nik ez nago ohituta ezta klasean, eee, familiarekin, lagunekin euskaraz hitz egitera, baina hona etortzerakoan jendearekin ba, saiatzen naiz; ez guztiekin, baina bai, badaude bi edo hiru ikaskidekin euskeraz hitz egiten dudala. (Ikasle 2, Erd-Ele, Gasteiz, G)

Erd-Ele tipologian, euskara gela barruan gertatzen den elkarrekintzarekin lotzen dute eta testuinguru horretatik kanpo gaztelaniaz bizi dira.

4.2.5. Hizkuntzari ematen dioten balioa

Kategoria honetan, hizkuntzei, eta zehatzago euskarari, ematen dioten balioaren inguruan egin diren adierazpenak jaso ditugu.

Nere bizitzako parte da, o sea, txikitatik eitten dot euskeraz ta nik... eztakit... nire zeoze moduan ikusten dot. Ta erderia nik ikusten dot zeoze ikasten hasi nintzenian ikasi nona ta ba inglesa moduen azkenien, eztala niria. Euskera ez dakiten beste jendekin komunikatzeko hizkuntza bat, o sea, ez dala niria, ta euskera niria danez ba nik horri ematen dotzet garrantzia. (Ikasle 2, Eus-Ele, Eskoriatza, E)

Eus-Ele tipologiako ikasleek euskara identitatearen parte sentitzen dute, euskaldun diren adierazle, txiki-txikitatik ikasi duten hizkuntza, maitatzen dutena eta familiarekin lotzen dutena. Gaztelania eta ingelesa, ordea, komunikatzeko tresna beharrezko moduan ulertzen dituzte.

Nik uste gaur egun Euskal Herrixan ahal dala bizi erderiakin bakarrik. (Ikasle 4, Ele-Pa, Oñati, E).

Es que nik uste dala bakoitzaren... o sea, no? Berez jakin jakin beharko zen, pues es que azkenean orain, o sea lehen esan deten bezela, orain lana egiteko askotan EGA eskatzen dute eta... euskera jakitea ere, ez? Baina beharrezkoa?... (Ikasle 2, Ele-Pa, Donostia, E)

Nik uste dot jakitea ondo eongo zala, baino oaintxe bertan ez dala beharrezkoa ezta, ze azkenen ahal zea harreman, o sea, ahal dituzu harremanak euki beste pertsonekin ta eztaukazu zertan euskera jakin behar. (Ikasle 7, Ele-Pa, Zumarraga, E)

Ele-Pa tipologiako en iritziz euskara ez da beharrezkoa Euskal Herrian bizitzeko. Jakin behar da, askotan lanerako EGA eskatzen dutelako, baina ez da beharrezkoa hemen bizitzeko. Jakitea ondo egongo litzateke, baina, ez da beharrezkoa.

Ni uste dot hamen euskara garrantzia daukala, ez? Azken finean e irakasle izaterakoan e Euskal Herrian ba lanpustu bat izateko ba euskera izan behar duzu, derrigorrez. Ta nibel minimo bat, ta horregatik ba beharrezkoa da ba uni honetan ba euskara sustatzia. (Ikasle 4, Erd-Ele, Elorrio, G)

Nire ustez gaztelera garrantzia gehiago du, adibidez hemen bai, euskera oso garrantzitsua da, baina adibidez hemendik ateratzen bazara pues euskera ez zaizu ezertarako balio. (Ikasle 1, Erd-Ele, Altsasu, E)

Erd-Ele tipologiakoek euskarari ematen dioten balioa guztiz instrumentala da, profesioari lotutakoa. Hizkuntzaren balioa gizartean duen funtzioarekin lotzen dute eta euskarak ez du presentziarik eskolatik kanpo. Ingelesa ageri da gero eta indar handiagoarekin kanpora joateko nahia dutelako eta beharrezkoa dela uste dutelako.

4.2.6. Hizkuntza-berdintasuna eta euskararen mendekotasuna

Kategoria honetan, hizkuntza-berdintasunaren eta euskararen mendekotasunaren inguruko adierazpenak bildu ditugu. Euskararen mendekotasunaren inguruko ideiak **Eus-Ele** eta **Ele-Pa** tipologietan jaso dira. Berdintasunaren ingurukoak, aldiz, **Ele-Pa** eta **Erd-Ele** tipologietan.

Eske hona jun die etortzen da joe eske nik erderaz hitzein nahi badet, erderaz hitzeingo det igual hola da baña pentsamendu horrekin ez det uste ya euskeria ingo dula. (Ikasle 9, Eus-ele, Azkoitia, E)

Neri adibidez pasau ziten presentau zibenien nire lagun baten neskie Iruñakua ta etorri zan gureana ta nik bea ez nun ezautzen osea nik berez enakixen zein zan ta nei ezantziben erderaz ez zekixela ordun nik ja askoz gehixo kostau ziten irekitzie osea euskaraz askoz e errezo esango nion nungu zea ta baña erderaz nik ez, askoz gehixo kostatzen zat. Gañea berak esateu errespeto falta bat iruditzen zaiola guk euskeraz itxia berak ulertze eztunian. (Ikasle 9, Eus-Ele, Azkoitia, E)

Eus-Ele tipologiako ikasleen ustez, fakultatean zilegi da euskara ez erabiltzea. Ikasle batek fakultateetik kanpoko gertakari baten berri eman du euskararen mendekotasuna adierazteko. Euskaraz egiteko ohitura duen talde batean erdaldun bat gehitzen denean, taldeko hizkuntza-erabilera aldatzeko eskatzen du, euskaraz egitea errespetu falta dela salatuz.

Ta nei pasaintzat batzutan igual eitten dot euskeraz berba baina zelan erderaz erantzuten dosten, ba txip aldaketa eta erderaz jarraiteten dot. (Ikasle 4, Ele-Pa, Oñati, E)

Ze nik uste dut, biak jakin behar ditugula, ez? O sea, inportantzia berdinarekin. Ez bat gehiago eta bestea gutxiago, baizik eta berdin. (Ikasle 2, Ele-Pa, Donostia, E)

Ele-Pa tipologiakoek diotenez, norberak euskaraz eginagatik besteek gaztelaniaz erantzunez gero, guztiek automatikoki gaztelaniaz erantzuten dute eta ez dute hizkuntza-aldaketa hori ezbaian jartzen. Gainera, hiru ikaslek hizkuntza-berdintasunari erreferentzia egin diote. Horien esanetan, gaztelania eta euskara biak dira garrantzitsuak eta biek dute balio bera.

Nik uste dot ee oreka mantendu behar dela, bai euskaraz bai erdaraz. Adibidez hamen eee euskaraz eee , ba beharrezkoa da hitz egiteko ta kanpoan bebai. Gero eee igual familia edo lagunek eee ez jatzue bultzatzen eee baaa euskeraz edo horrelako eee hizkuntzak hitz egiten ba bueno, baina azken finean nik uste dot eee nahiz eta gatxa izan askotan, oreka bat mantendu behar dela... bion artien. Eske oso garrantzitsuak dira. Bueno guretzako ia beharrezkoak. Ingelesa bebai, baina euskaraz eta gaztelera... (Ikasle 4, Erd-Ele, Elorrio, G)

Bueno, niretzat, adibidez eee bai gaztelania bai euskera eee garrantzia bera dute ze nire ustez hemen egonda eeee euskeraz hitz egite... bueno euskeraz hitz egj eee ikastera etortzen naiz, eta ez gaztelaniaz, orduan niretzat bai dauka garrantzi bera, bai euskera ta bai gaztelania gero ee bata bestea baino eee gehiago erabiltzea ez du esan nahi garrantzi bera ez da... daukala edo ez. (Ikasle 2, Erd-Ele, Gasteiz, G)

Erd-Ele tipologiakoentzat dakizkiten hizkuntza denak dira garrantzitsuak maila berean, nahiz eta gaztelaniak presentzia handiagoa duen ikasle horien bizitzan.

5. Ondorioak

Hiru tipologietako partaideek euskara-gaitasunaren autopertzeptzio positiboa dute, oro har. **Eus-Ele** eta **Ele-Pa** tipologietako ikasleek positiboagoa dute **Erd-Ele** tipologiakoek baino. Azken horiek euskaraz egiteko zailtasuna aitortu dute eta beren diskurtsoetan ere nabari da gaitasun eskasagoa dutela.

Besteek duten euskara-gaitasunarekiko pertzeptzioaren gaia ez da talde guztietan atera, baina, **Eus-Ele** taldeko ikasleek modu kritikoa aipatu dute. Beste ikasleen gaitasun apalak haiekin komunikatzeko mugak sortu dizkie, eta Gasteiztik datozen ikasleak aipatzen dira behin baino gehiagotan: badago iritzi edo ustea ikasle horiek direla batez ere gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Baina, aldi berean, ikasturtean zehar euskara-gaitasunean egindako hobekuntza eta euskara gehiagotan erabiltzeko egindako esfortzua ere aitortzen zaie; halaber, balio handia ematen diote egiten duten esfortzuari, daukaten hizkuntza-testuingurua eta hurbileko sarean duten euskaldunen dentsitatea ez baita batere lagungarri. Emaitza horiek bat datoz EAEko hiru lurraldeetako euskal hiztunek euskaraz egiteko duten erraztasunarekin (Eusko Jaurlaritza, 2019); izan ere, **Erd-Ele** taldeko ikasleak euskal hiztunen dentsitatea apala den gune soziolinguistikoetatik datoz eta etxeko giroa eta harreman-sare hurbila gaztelaniaz izan ohi da.

Ia ikasle guztiak D eredutik datozen arren, **Eus-Ele** taldekoak dira euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen diren bakarrak. **Ele-Pa** taldekoek diote bietan berdin moldatzen direla eta **Erd-Ele** taldekoak erosoago sentitzen dira gaztelaniaz euskaraz baino.

Batua eta euskalkiari dagokionez, argi ikus daiteke ikasleek hizkuntza-profil ezberdinak dituztela. Alde batetik, **Eus-Ele** taldekoek euskalkian aritzeko joera dute, ez dira eroso sentitzen euskara batuan eta gainerako gelakideekin elkar ulertu ahal izateko diote gaztelaniara jo behar izaten dutela maiz. Ikasle horiek egokitze-estrategiara jotzen dute, batez ere ikasturte-hasieran, oraindik ikasleen arteko konfiantza-maila txikia denean, eta badakigu egokitze-estrategia oztopo nagusietariko bat dela hizkuntza gutxituen erabileran (Casesnoves-Ferrer eta Mas, 2017). **Ele-Pa** taldekoak ere kontziente dira batzuek zailtasuna dutela euskalkiak ulertzeko eta, batez ere, Gasteizko ikasleak aipatu dituzte. Talde horretan, bizi-esperezia kontrajarriak daude: badago euskalkian egiten dutenen artean, batuaz egiten dutenen euskara hobea dela uste duenik; alderantziz, hau da, euskalkirik ez dutenek, euskalkian egiten dutenek euskara-gaitasun handiagoa dutela adierazten dute; **Erd-Ele** taldekoek, aldiz, euskalkiak ulertzeko ezintasuna dute eta egoera horrek beldurra sortzen diela adierazi dute.

Eus-Ele taldeko ikasleak euskaldunen dentsitatea handia den gune sozio-linguistikoetan bizi dira, ohitura dute euskaraz egiteko eta euskararen aldeko hautua egiten dute. Ikasturte-hasieran besteen hizkuntza-hautuaren aurrean amore ematen badute ere egokitze-estrategia erabiliz, ikasturteak aurrera egin ahala, euskaraz egiteko hautuari eusten diote; besteek euskaraz dakitela badakite, euskarari eusten diote eta bi eletako elkarrizketak onartzen dituzte. Hizkuntza-gaitasun ona dute ahoz eta egoera informaletan, ondo moldatzen dira euskaraz, eta euskara erabiltzeko hautu kontzientea egiten dute (Dobaran, 2017). **Ele-Pa** taldeko ikasleek testuinguruaren arabera euskaraz edo gaztelaniaz egiten dutela zehaztu dute, baina gaztelaniaz egiteko ohitura handiagoa dutela diote eta errazago egiten dutela. Hizkuntza-ohiturak eragina dauka gaitasunean, errazago egiten baitute nagusiki erabiltzen duten hizkuntzan. **Erd-Ele** taldekoen joera nagusia gaztelaniaz egitea dela onartu dute. Beraz, esan daiteke euskaraz egiteko erraztasunak eta tipologia bakoitzeko ikasleen harreman-sareak hizkuntza-hautuan zeresana duela (Zalbide, 2016).

Testuinguruak eragina dauka hizkuntza-ohituretan eta hizkuntza-hautuan. Familiar jaso duten hizkuntzak eta gertuko testuinguruak baldintzatzen dute egiten duten hizkuntza-hautua. Horrela, etxetik euskara jaso dutenek eta testuinguru euskaldunean bizi direnek euskaraz egiteko hautua egiten dute nabarmen, eta etxetik gaztelania jaso dutenek eta testuinguru erdaldunetik datozenek gaztelaniaz egiten dute nagusiki.

Eus-Ele taldekoek euskaraz egiten dute ohituraz bizitzako esparru guztietan, baina modu kritikoan aipatu dute gela barruan kanpoan baino euskara gehiago entzuten duten arren, gelakideen portaera naturala gaztelaniaz egitea dela, nahiz eta **Eus-Ele** taldekoei euskaraz zuzentzen zaizkien. Horrek adierazten du talde horretakoek euskararen aldeko hautua modu kontzientean egiten dutela eta ez dutela amorarik ematen, esfortzu eta erronka handia eskatzen baldin badu ere (Dobaran, 2017).

Ele-Pa eta **Erd-Ele** taldeetako ikasleek, euskara, eskolako jardun akademiakoarekin soilik lotzen dute. Eskolari egotzi zaio hiztun kopurua handitzeko ardura, haur eta gazte gehienek badakite euskaraz, baina horrek ez du lagunarteko erabilera bermatzen eta beste estrategia batzuk beharko ditugu euskara eskolako eta eskolarako hizkuntza den ustea gainditzeko (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urla, 2016; Dobaran, 2017).

Euskarak fakultatean eta gizartean bizi duen egoeraren pertzepzio oso ezberdinak dituzte. **Eus-Ele** eta **Ele-Pa** taldeetako ikasleentzat euskara mendekotasun-egoeran dago eta bi taldeetakoek era kritikoan adierazi dute, oro har, gizartean, eta zehazki fakultatean, euskara ez dela beharrezkoa. Diskurtsoan mendekotasunaren ideia bi taldeetan agertzen bada ere, praktikan, **Ele-Pa** taldekoek ez diote euskarari eusten eta modu naturalean pasatzen dira euskaratik gaztelaniara. **Eus-Ele** taldekoek euskararen hautuari eusten diote. Beraz, praktikan, hizkuntza-berdintasunaren aldeko diskurtsoa **Ele-Pa** taldekoek agertzen dute. **Erd-Ele** taldekoentzat antzekoa da bi hizkuntzen garrantzia, nahiz eta onartzen duten gaztelania gehiago erabiltzen dutela. **Ele-Pa** eta **Erd-Ele** tipologietako ikasleen artean berdintasunaren diskurtsoak indarra hartzen du; hiztunaren edo norberaren hautua da zer hizkuntza erabili hautatzea. Euskara eta gaztelania *continuum* batean daude eta batetik bestera erraz pasatzen dira hitz-jarioa eten gabe (Eusko Jaurlaritza 2016; Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla, 2016, Grosjean eta Li, 2013).

Ikasleak bizi duen gertuko sarearen errealitateak eta bizi den gune soziolinguistikoak baldintzatzen dute fakultatean euskarak duen presentziaren pertzepzioa. **Eus-Ele** taldekoek diote unibertsitatea ez dela ingurune euskalduna. **Ele-Pa** taldeko hainbat ikaslek dio fakultatera etorri direnetik euskara gehiago erabiltzen dutela. **Erd-Ele** taldekoentzat, aldiz, fakultatean euskaraz bizi dira. Errealitate berbera eta pertzepzio erabat ezberdina.

Soziolinguistika Klusterrak, Topaguneak eta Urtxitxak (2007) gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketan ere goian aipatutakoa ondorioztatu dute, alegia, gazteen artean maila indibidualerako joera dagoela eta diote hizkuntzaren erabilera hautu pertsonal soiltzat uler daitekeela horren azpian. Nabarmena da joera hori, esate baterako Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urlaren (2016:251) euskal hiztun berrien inguruan egindako ikerketan gazteek adierazten dutena: «Deigarri da [gazteen artean] “ez inposatzearen diskurtsoa” izendatu duguna, hau da, euskara ezin dela inposatu, erabilera norberaren aukera dela dioena». Eusko Jaurlaritzaren (2016) Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoak egitasmoaren txostenean ere, EAEko herritar gehienek partekatzen dituzte hizkuntzekiko ideia hauek: euskara, gaztelania eta ingelesaren garrantzia bateragarria eta bakoitzaren hautu linguistikoak errespetatu eta onartzearena.

Euskarak balio instrumentala du **Ele-Pa** eta **Erd-Ele** tipologietako ikasleentzat. Euskara, gaztelania eta ingelesa hirurak dira beharrezkoak, eta horietako bat erabiltzeko hautua egingo dute testuinguru edo beharraren arabera. Ikasle batzuek atzerriko beste edozein hizkuntza bezala ikasi dute euskara, eta beraientzat ez dauka inolako balio erantsirik edo ez dute atxikimendu berezirik euskararekiko. Aukeratu duten profesiorako garrantzitsua da, baina ez du beste funtziorik, Euskal

Herrian bizitzeko ez da beharrezkoa. **Eus-Ele** tipologiako ikasleek, ordea, euskarari balio sinbolikoa ematen diote eta identitatearen parte sentitzen dute.

Bernardo Atxagak (in Martinez de Luna, 2006) gure azterketan subjektu izan diren hiru hizkuntza-tipologiaren antzeko banaketa egin zuen: euskaldun *patetikoak* edo militanteak; euskaldun *sinpatikoak* edo euskararekiko atxikimendua agertu arren, euskaraz bizitzeko ahaleginik egiten ez dutenak; eta, euskal *antipatikoak* euskararengandik urruti bizi direnak. Martinez de Lunak aipatzen dituen hiru tipologiaren antza dutela esan dezakegu, ñabardurak ñabardura. **Eus-Ele** taldekoak lirarteke euskaraz bizi diren eta bizi nahi duten ikasleak, **Ele-Pa** taldekoak dira euskararekiko jarrera ona agertzen dutenak baina portaera jarrerarekin bat ez datozenak, eta **Erd-Ele** taldekoak euskararen antipodetan bizi direnak.

Askotan irudikatu izan ditugu euskararen inguruan horrelako hiru tipologia eta askotan amestu izan dugu erdian daudenak, euskararekiko jarrera ona erakusten dutenak, euskaraz bizi direnen aldera erakarriko genituela. Baina, ikerlan honetan antzeman duguna da **Ele-Pa** taldea edo euskararekiko jarrera ona duen baina hizkuntza-portaera gaztelaniaren aldekoa den taldea, **Erd-Ele** taldetik gertuago dagoela **Eus-Ele** taldetik baino. Eta, noski, horrek inplikazio garbia du: **Ele-Pa** eta **Erd-Ele** taldekoak ikasleen % 75 inguru izanik HUEZIn, gaztelaniaz egiteko hautua egiten dute, hizkuntzen berdintasunaren diskurtsoa eta hizkuntza batean edo bestean egiteko eskubide indibiduala oso barneratuta dauzkate, eta, euskara gaztelania eta ingelesaren garrantzi-maila berean jartzen dute.

Ohikoa izaten da euskararen egoera ez oso normalizatua den testuinguruetan, erdi-erdian euskararentzat erreferente direnak jartzea eta gurditik tiraka jartzea; eta, horrela beharko du, baina, testuinguruko hiztun gehienak euskararen baitako ez direnean, gerta litekeena da talde eragileari erantzukizun eta karga handiegia esleitzea eta egindako esfortzua haien kontra bihurtzea, *boomeran* efektua bailitzan. Horregatik, garrantzitsua izango da pertsona bakoitzaren esfortzuaren mugak non egon daitezkeen, hau da, hizkuntzarekiko nolako jarrera eta motibazioak dituen jakitea, hain zuzen ere (Irastortza, 2010).

Hiru hizkuntza-tipologietako ikasle hauek etorkizuneko irakasle izango direla kontuan hartzen badugu, aurreikus dezakegu, euskararen normalkuntzan nekez egingo dela aurrera nola alderdi kuantitatiboan, hala alderdi kualitatiboan. Egoera honek eskatzen du hezkuntza-komunitateak gogoeta sakona egiteaz gain, esku-hartze eraginkorrak inplementatzea. Besteak beste, euskara-plan eraginkorrak jarri beharko lirarteke abian eta planarekin batera, euskararekiko konpromisoak hartu, ekintzak bideratu eta aurrerapausoak nabaritu behar lirarteke (Irastortza, 2010).

Euskararen erabilera errazteko egin daitezkeen hizkuntza-plangintzei begira, lehen aipatu diren aldagaiak indartu eta zaindu beharko lirarteke: alde batetik, badirudi datozen belaunaldietako haurrak euskal eredu-tako ikastetxeetan matrikulatuko dituztela nagusiki EAEn, behintzat; bestalde, aurreikus daiteke joera horrek horrela jarraitzen badu, euskaraz dakitenen proportzioak gora egingo duela; eta, ondorioz, abagune ederra izan liteke euskal identitatea eta euskararen aldeko jarrerak eta portaerak bultzatzeko.

Hezkuntza-sistema izan daiteke bizi dugun asimilazio-prozesua gainditzen laguntzeko eremu estrategiko nagusietako bat, zalantzarik gabe. Ildo horretatik jarraituz, eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, euskal identitatea indartu beharko litzateke zuzenean; Garciak (2001: 160-161) dioen bezala, «eta ez orain arte instituzioetatik bultzatu den identitate integratzailea, edo euskal-espainiarra (elebiduna, kulturbiduna, edo antzekoa, beste ikerketa batzuetan), identitate kulturbiduna ez baita euskararen erabilerekin lotzen», lan honen emaitzetan antzematen den bezala.

HUHEZlri dagokionez, Hezkuntzako Graduetako lehen bi mailetan lantzen diren hizkuntza ikaste-emaitzek erakusten digute hizkuntza erabilerekin eta kalitatearekin lotzen dela nagusiki. Hizkuntzarekiko jarrera, atxikimendua, motibazioa eta estatusaz ere baditugu hainbat ikaste-emaitza, baina horien lanketan indar handiagoa jarri behar da aurrera begira. Une honetan fakultatea murgildurik dagoen hezkuntza-berrikuntza testuinguruan, euskal sisteman arituko den hezitzaile-profilean «testuinguru euskaldunean sustraitua eta komunitatearekin konprometitua» egongo den pertsona definitu dugu (Imaz eta Ipiña, 2020), hau da, euskara eta euskal kultura gutxituak dauden testuinguruan bere irakasle-roletik modu aktiboan jokatu duena, euskara eta euskal kultura motibaziotik sustatzen saiatuko den hezitzailea. Profil horren garapenerako bitartekoak eta esku-hartze ezberdinak diseinatu beharko ditugu, egun egiten dugunetik haratago.

Uste dugu D ereduan ikasi eta unibertsitatera datozen ikasleen hiztun-profilek zer pentsatua eta aldi berean informazio oso interesgarria ematen dutela belaunaldi berrien profilak sakon ezagutu eta ulertzeko. D eredutik etorritako hainbat ikasleren euskararen ezagutza-maila eta erabilera ez dira espero ditzakegunak, eta dakarten euskara eta euskal kulturaren inguruko ezagutza oso azalekoak dira. Aldi berean, hiztun-profilak sakon ezagutzeak lagunduko digu hiztun-profil bakoitzari modu eraginkorragoan erantzuteko estrategiak diseinatzen. Halaber, beste hezkuntza-erakunde batzuetan ere antzeko hiztun-profilak izango direla uste dugu, eta, ondorioz, pentsa daiteke lan honetan izandako emaitza eta ondorioak baliagarriak izan daitezkeela horietan ere estrategia eraginkorrak proposatu eta garatzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Agirre, L. (2015): «Inposizioaren diskurtsoa txikitu», *Larrun*, 197, *Argia*, <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2458/euskalgintza-berritu-ala-hil>>.
- Alonso, J.E. (2002): «Los mercados lingüísticos o el muy particular análisis sociológico de los discursos de Pierre Bourdieu», *Estudios de Sociolingüística*, 3(1), 111-131.
- Aristi, P. (2019): «Euskara ispiluaren aurrean», *BERRIA*, Iritzia, 2019-12-01, <<https://www.berria.eus/paperekoa/1950/019/002/2019-12-01/euskara-ispiluaren-aurrean.htm>>.
- Ariznabarreta, L. (2019): *Notes on Basque Culture: The Aftermath of Epics*, Universidad CLAEH, Montevideo.
- Casesnoves-Ferrer, R. eta Mas, J.A. (2017): «Ideology and language choice: Catalan-speaking university student», *Sociolinguistic studies*, 11, 107-129.
- Creswell, J.W. (2009): *Research design: Qualitative, quantitative and mixed approaches (3a. ed.)*, SAGE, Thousand Oaks CA.

- Dobaran, M. (2017): «Orain artekoa zimentarri, etorkizuna irabazteko arnasa berriaz», *HERMES*, 57, 78-81.
- Egaña, J.M. (2010): *Nola bilatzen, ebaluatzen eta aukeratzen dute informazioa unibertsitate-ikasleek?* [Doktorego-tesia], Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza.
- Eusko Jaurlaritz (2016): *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa*, Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Eusko Jaurlaritz (2017): *Euskadiko Gazteak 2016*, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- Eusko Jaurlaritz (2019): *VI. inkesta soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Fishman, J.A. (2000): «Who speaks what language to whom and when?», in L. Wei (arg.), *The Bilingualism Reader*, Routledge, Londres, New York, Holt, 89-106.
- Garcia, I. (2001): «Ukipen-egoeran dauden menpeko hizkuntzen erabilera», in N. Arratibel, I. Garcia eta M. Azurmendi (ed.), *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*, (1. ed.), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 117-157.
- Garcia, L.; Arratibel, N. eta Irizar, A. (2017): «Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko gakoak», *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 105, 163-199.
- Grosjean, F. eta Li, P. (2013): «The psycholinguistics of Bilingualism», Wiley-Blackwell, Oxford.
- HUHEZI (2019): *Hizkuntza proiektua* [Barne-dokumentua].
- Hernández, S.R.; Fernández, C.C. eta Baptista, L.P. (2014): *Metodología de la investigación* (6. arg.), McGraw-Hill, Mexiko.
- Imaz, A. eta Ipiña, N. (2020): *Berrikuntza prozesu baten mapa berria: eraldaketaren eredia*, Mondragon Unibertsitatea, Arrasate.
- Irastortza Madariaga, J.I. (2010): *Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garatetik helburuak lortzera*, doktorego-tesia, Mondragon Unibertsitatea-HUHEZI.
- Iurrebaso, I. (2016): «Hainbat gogoeta hizkuntza-gaitasunaren inguruan», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 99, 81-95
- Martinez de Luna, I. (2006). Euskararen komunitatea bide-ertzean ahaztuta. *Argia*. 2006ko irailaren 17a.
- Nieto, S. eta González, J. (2002): *Los valores en la Literatura Infantil. Estudio empírico: Técnicas y procedimientos de análisis*, Aral, Valladolid.
- Olasagarre, Y.; Ramos, R. eta Vilches, C. (2019): *DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku hartzea*, Nafarroako Gobernua - Hezkuntza Departamentua.
- Ortega, A; Amorrortu, E; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016): *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, Bizkailab, Bilbo.
- Ruiz Olabuénaga, J. I. (1999): *Metodología de la investigación cualitativa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa (2007): *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*, Emaizten txostena.
- Soziolinguistika Klusterra (2017): *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016*. Hemendik jasoa: <<http://www.soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh>>.
- Zalbide, M. (2016): «Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 100, 10-192.

